

3.1.3. UDAL-AREAK. ALKATETZA. KOMUNIKAZIO-ZERBITZUA.

Iruñeko Udaleko Komunikazio Zerbitzuak 1.913 prentsa-ohar igorri zituen 2017an, aurreko urtean baino % 3,7 gehiago (1.844 udal-informazio igorri zituen orduan). Martxo, maiatza eta azaroan bidali da informazio gehien (180 prentsa-ohar baino gehiago). Kultura Alorrak eragin du prentsa-ohar gehien, igorritako informazioen heren bat zehazki. Urtean, 270 deialdi baino gehiago egin zitzaizkien hedabideei, besteak beste ekitaldi, inaugurazio, erakusketa eta prentsaurrekoetarako.

	2013	2014	2015	2016	2017
Prentsa-oharrak	1.606	1.582	1.636	1.844	1.913
Prentsaurrekoak	218	215	187	281	270

OSOKO BILKUREN, BATZORDEEN ETA PRENTSAURREKOEN ZUZENEKO ETA AURREZ GRABATUTAKO EMANALDIETARAKO SARBIDEAK

	2017		2016	
	Zuzenekoa	Aurrez grabaturik	Zuzenekoa	Aurrez grabaturik
Osoko Bilkurak	12.891	816	11.475	3.420
Batzordeak	17.361	1.232	12.913	3.145

Sanferminek erreferente mediatiko eta informatibo bat izaten jarraitzen dute. Mundu osoko 130 komunikabidetako 400 profesional grafiko eta kazetari baino gehiago etorri dira Iruñera 2017an, jaietako entzierroen berri ematera. Freelance argazkilariek, Estatuko zein nazioarteko agentziek, hainbat herrialdetako egunkariak, irratiek, zinema- eta telebista-ekoiztetxeek eta beste zenbaitek interesa agertu dute entzierroen inguruan. Iruñeko Udalak akreditatutako profesionalak hamar herrialdetik etorri dira: Estatu Batuak, Erresuma Batua, Frantzia, Argentina, Txina, Mexiko, Alemania, Italia, Txekiar Errepublika eta Kroazia.

2017KO SANFERMINETAKO AKREDITAZIOAK: TXUPINAZOA, ENTZIERROA ETA GAIXOA NI

	2017	
	Akreditatu kopurua	Hedabide kopurua
Txupinazoa	160	45
Entzierroa	400	130